

Manuel Laborde

Euskaldunon Egunkaria, 1993-05-25: 2.

Euskal Herriak izan du, lurrez pobrea delako, baserritar eta enpresa-gizon ugari, eta zintzotasunean jokatuaz eman digute orain artekoan munduan zehar ongi irabazitako ospea.

Hauetako bat, hil berria den don Manuel Laborde Werlinden izan da. Ni jaio nintzen garaian ez zegoen Andoainen Etxeberrietako Subijanaren algodoneraz gain fabrika handi asko beste muturrean Kaletxikiko Moleda arte, eta hemen sortu zuten Gillermo Laborde Garate eta Tolosako beste lau semek Eduardo, Jose Mari, Manuel eta Enriquek 1926an, galtzairu fina eta erreminta fabrika bat. Neu ez nengoen nire bost urterekin lanerako moduan oraindik, baina bai 1940go ekainean alemanak Ziburutik bota nindutenean, eta gerrak barrutik erreta utzi zigun herrian lan bila jarri nintzen hartan, beste inork ogibiderik eman nahi ez eta apreziatuena zen Laborderengana hurbildu nintzen, eta ingeniari buru zen don Manuel Labordek nire aita nondik nora zebilen galdetu ondoren, lanera etortzeko esan zidan. Laister ikusi nuen, gainera, ez nintzela garai hartan lanean hartutako "gorri-separatista" bakarra! Niri ez zait hau bizi naizen artean ahaztuko. Gero ikusi nuen don Manuel Laborderi hau baino gehiago zor diogula zeren eta ikertzaile bezala Euskal Herrian bi dolmen eta hamalau ilarri diskoidal eta Arizuloko haitzazuloa aurkituaz gain, Barandiaran eta lekuonarekin Eusko Ikaskuntzan, Arantzadin eta Bergaran lan asko eta ona egina dela. Ikertzaile, idazle, euskaltzale apal eta maitekor hau gauza guztien gainera gaur hainbeste falta zaigun lan sortzaile eta industri-gizona izan zen, eta Andoain bertan ingeniariak diren bilobek utzi ditu gaur ahalegin zail honetan. Ez dute, eta alderdi askotatik, maisu oberik izango.